



**VILLABONAKO UDALAREN ETA OINKARI DANTZA TALDEAREN ARTEKO LANKIDETZA
HITZARMENA**

Villabonan,

BILDURIK

Batetik, BEATRIZ UNZUE ESNAOLA andrea, Villabonako Alkate andrea.

Bestetik, ARTEAGA USANDIZAGA ENEKO jaun/anderea, adinduna. Ondorio hauetako helbidea: ASKATASUNAREN PLAZA 5, 1-A, 20490 LIZARTZA; eta Nortasun Agiria: 44134144L, OINKARI DANTZA ELKARTEA elkartearen ordezkaria.

Ni, MIKEL VON WICHMANN PAVLETICH jauna, Villabonako Udaleko Idazkaria, aurrean nagoela.

PARTE-HARTZAILEAK

BEATRIZ UNZUE ESNAOLA, Villabonako Udalaren izenean eta ordezkaritzan (Erreboteko Plaza z/g; IFK: P2008100F), Alkate gisa esku hartu du, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko maiatzaren 29an hartutako erabakiaren bidez eman zaio egintza honetarako ahalmena.

ARTEAGA USANDIZAGA ENEKO jaun/anderea, OINKARI DANTZA ELKARTEA elkartearen izenean eta ordezkari gisa. OINKARI DANTZA ELKARTEA Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan inskribaturik dago, bere helbidea TXERMIN KALEA 62, (99 posta kutxatila) 20150 VILLABONA da, eta bere IFK G20876488. ARTEAGA USANDIZAGA ENEKO jaunak/andereak Elkartearen ordezkari gisa hartu du parte, eta, ondorioz, bera da Elkartearen legezko ordezkaria, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko Legearen 15. artikulua arabera.

Bi alderdiek dokumentu hau egiteko gaitasuna aitortu diote elkarri, eta xede horrekin honako hau

ADIERAZTEN DUTE

- OINKARI DANTZA ELKARTEA Elkartearen (aurrerantzean Elkartearen), bere Estatutuen arabera, xedetzat duela
 - Euskal Herriko dantzak jaso, ikasi eta erakustea.
 - Euskal dantza tradizionala oinarri hartuta, dantza garaikideari keinu egiten dioten emanaldiak sortzea eta zabaltzea.
- Elkarteak ondorengo jarduerak eraman nahi dituela aurrera Villabonako udalerrian:
 - Dantza Eskola Urte osoa
 - Aurreku Liga 2024-01-28
 - Dantzari Eguna 2024-03-09
 - Dantza emanaldia: Sageltarrak ikuskizuna 2024-06-09
 - Dantza Eskolaren emanaldia (kurtso bukaerako emanaldia) 2024-06-22
 - SANTIOAK - Soka Dantza 2024-07-25
 - SANTIOAK - Erromeri Eguna 2027-07-27
 - 49. urteurrena: Korrontzi & Oinkari ikuskizuna 2024-11-23



3. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25. artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikulua arabera udalerriei dagozkien eskumenen artean, honako hauek daude:

- Kirola, kirol-instalazioak eta aisialdirako instalazioak sustatzea.
- Kultura eta kultura-ekipamenduak sustatzea.
- Euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzea.
- Hiri-ingurumena
- Gizarte-beharrizaneko egoeren ebaluazioa eta informazioa, eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako berehalako arreta

Horrekina batera, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 16. artikulua adierazten du udalerriek jarduerak, zerbitzuak edo prestazioak garatu ahal izango dituztela, baldin eta jarduera, zerbitzu edo prestazio horiek, transferitutako edo eskuordetutako eskumen propioen eremuaren barruan egon gabe, herritarren bizi-kalitatea hobetzea dakarren eta komunitatearen edozein premia edo interes asetzen duen edozein jarduera-eremu antolatu eta kudeatzera bideratuta badaude.

4. Elkarrekin irabazi asmorik ez duenez, jarduera egitean ezingo du diru-irabazirik izan.

5. Jarduerak/ek ez du/te kontratu izaerarik bere edukia ez delako Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak araututako kontratuetan sartzen. Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 6.2 artikulua bere aplikazio eremutik kanpo uzten ditu *“Administrazioak zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin egindako lankidetzak hitzarmenak, berariazko erregulazio arauen arabera egindakoak hain zuzen, betiere horien helburua ez bada jasotzen Lege honetan edo arau administratibo berezietan araututako kontratuetan”*.

Agertutako alderdiek interes berbera dutenez, lankidetzak-hitzaurre hau sinatu dute, ondoko klausula hauei jarraituz:

KLAUSULAK

1. Xedea

Lankidetzak hitzaurre honen xedea da Villabonako Udalaren eta Elkarrekin arteko lankidetzarako baldintzak ezartzea.

2. Hitzarmenaren xede diren jarduerak

Elkarrekin eta Villabonako Udalaren arteko elkarlana, nagusiki jarduera hauetan zehaztuko da:

- Dantza Eskola Urte osoa
- Aurrezku Liga 2024-01-28
- Dantzari Eguna 2024-03-09
- Dantza emanaldia: Sageltarrak ikuskizuna 2024-06-09
- Dantza Eskolaren emanaldia (kurtso bukaerako emanaldia) 2024-06-22
- SANTIÖAK - Soka Dantza 2024-07-25
- SANTIÖAK - Erromeri Eguna 2027-07-27
- 49. urteurrena: Korrontzi & Oinkari ikuskizuna 2024-11-23
-

Jarduerak ondorengo baldintzetan eramango dira aurrera:

- Jarduerak antolatzeke ardurak osoa euren sustatzailearena da, kasu honetan Elkarrekinarena, eta hori antolatzean, aplikagarri den araudian aurreikusitako baldintzak guztiak eta beharrezko baimen guztiak (Villabonako Udalaren eta bestelako erakundeek - Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzak, etab.) betetzeko betebeharra du.
- Ekitaldi horien antolaketa dakartzan lan eta gestioak osotasunean Elkarrekinaren esku geratzeko dira.
- Elkarrekin bere emanaldiak iragartzeko erabiltzen dituen euskarrietan Villabonako Udalaren



aipamena egingo da.

d) Elkartearen lankidetzatza Villabonako Udaleko Kultura sailak ikuskatuko du.

3. Dirulaguntza

Villabonako Udalak diruz lagunduko du Elkartea hitzarmen honetan zehaztutako jarduerak garatzeko. Hitzarmena sinatzen den urtean, dirulaguntzaren zenbatekoa 49.500,00 €-koa izango da aurrekontu partidaren kargura. Hurrengo ekitaldietan dirulaguntza emateko baldintza izango da Villabonako Udaleko dirulaguntzen plan estrategikoan jasota egotea, eta udal-aurrekontuetan dirulaguntza izenduna esleitzea eta dirulaguntza emateko baldintzak betetzea.

Elkarreak aurreko urtean jasotako dirulaguntza aldatzeko eskaera egin nahi izango balu, hurrengo urteko jardueren eta diru-sarrera/gastuen aurreikuspena aurkeztu beharko du irailaren 15a baino lehen (Udalak horretarako prestatutako inprimakien bidez).

4. Ordainketa mota

Udalak konpromisoa hartzen du onartutako dirulaguntzaren % 90a gehienez ere hilabeteko epean ordaintzeko, hitzarmen hau sinatzen denetik zenbatzen hasita, hitzarmenaren indarraldiko lehen urtean.

Hurrengo urteetarako, % 90a ordaintzeko, udal-aurrekontuak behin betiko onartuta egon beharko dira. Behin aurrekontuak onartuta, Udalak ordainketa egingo du urte bakoitzeko apirilaren 30a baino lehen.

Gainerako % 10a erakunde onuradunak emandako funtsen erabilera hitzarmenaren termino eta baldintzen arabera behar bezala justifikatu ondoren eta Udalak justifikazioa balioztatu ondoren ordainduko da, gehienez ere bi hilabeteko epean justifikazioa jasotzen den egunetik zenbatzen hasita. Elkarreak dirulaguntzaren justifikazioa **otsailaren 15a baino lehen** aurkeztu beharko du

Justifikazio-memoriak honako hauek jaso beharko ditu: dirulaguntzaren xede diren jardueren deskribapen zehatza, lortutako estaldura (artatutako pertsona kopurua, emakumeak, gizonak, adina, erabilitako hizkuntza...) eta lortutako emaitzen ebaluazioa.

Memoriak jarduera osoaren balantze ekonomikoa (gastuak eta diru-sarrerak) jasoko ditu, eta diruz lagundutako jardueren gastu guztiaren egiaztagiriak ere, horien zerrenda xehatuarekin batera.

Gastuen egiaztagiriak: fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten edo eraginkortasun administratiboa duten frogak-balio baliokidea duten gainerako dokumentuak, diruz lagundutako jarduera gauzatzearen ondoriozko gastuei eta sarrerei dagozkienak.

Faktura edo dokumentu baliogabe oro ez da kontuan hartuko jasotako dirulaguntza justifikatzeko orduan.

Dirulaguntza hau, xede bererako beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderikiko bateragarria izango da, aipatu dirulaguntzen arautegi erregulatzailerak ezar lezakeena kaltetu gabe. Dena den, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez berak bakarrik ezta beste dirulaguntza, sarrera edo baliabideri gehituta ere.

5. Zeharkako gaiak

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legean xedatutakoa bete beharko da, bereziki 4. artikuluan (printzipio orokorrak betetzeari buruzkoa), 17. artikuluan (estatistikak eta azterlanak egokitzeari buruzkoa), 19. artikuluan (edozein euskarritan hizkera sexista ez erabiltzeari buruzkoa) eta 24. artikuluan (zuzendaritza-organoetan eta kide anitzeko organoetan gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen presentzia orekatuari buruzkoa).

Erabilitako dokumentazio guztian (programa aurkezteko idazkiak, testuak, galdetegia, txostenak, etab.) hizkera ez-sexistaren irizpideak aplikatu beharko dira.



Halaber, Villabonako Udalak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean onartuta dituen irizpideak bete beharko dira.

6. Hizkuntza irizpideak

Udalak beste entitate publiko edota pribatu batzuekin hitzarmenak sinatu ahal izango ditu, euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzeko.

Udalak pertsona fisiko eta juridikoekin sinatzen dituzten hitzarmenak euskaraz idatziko dira.

Hitzarmenaren edukia nolakoa den, euskara sustatzeko eta herritarren eskubideak babesteko hizkuntza klausulak sartuko dira.

Diruz lagundutako jarduerak berekin dakarrenean herritar-multzo zehaztugabe batekin zuzeneko harremana edukitzea, euskararen erabilera bermatuko da.

Diruz lagundutako jardueran komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, euskaraz egingo dira.

Dirulaguntza jasotzen duen ekintzatik eratorri daitekeen hitzaldi edo antzekoren bat antolatzen bada, euskaraz izango da, arrazoitutako salbuespenak izan ezik, —hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea—hizkuntza eskubideak errespetatu daitezkeen.

Haur eta gazteentzako egiten diren jarduerak euskaraz egingo dira beti.

Haur eta gazteekin aritzen diren hezitzaileei Udalak formazio soziolinguistikoa emango die, eta Udalaren irizpideak jakinaraziko zaizkie.

7. Villabonako tokiko merkataritzari laguntzeko gomendioa

Dirulaguntza honen erakunde onuradunari gomendatzen zaio bere jarduerak gauzatzeko beharrezkoak dituen ondasun eta zerbitzuen erosketak, ahal dela, Villabonako establezimenduetan egitea. Ekintza honen helburua tokiko merkataritza hazten eta indartzen laguntzea da, komunitatearen garapen ekonomiko eta sozialean lagunduz.

8. Jarraipen batzordea

Hitzarmenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena egiteko batzorde bat eratuko da.

Batzorde horrek hitzarmenaren inguruan sor daitezkeen interpretazio eta betetze arazoak konponduko ditu, eta hitzartutako jarduera bakoitza eta alderdiek hartutako gainerako betebeharrak betetzen diren ebaluatuko du.

9. Auziak

Hitzarmen hau garatzean alderdien artean auziren bat sortuz gero, aurreko klausulan ezarritakoa eragozpen izan gabe, administrazioarekiko auzien jurisdikzio bidez ebaztuko dira.

10. Ez-betetzeak

Elkarteak ez baditu betetzen lankidetzaren hitzarmen honetan bere gain hartutako obligazio eta konpromisoak, itzuli egin beharko du jasotako dirua, dena edo zati bat, edo ez zaizkio dagozkion zenbatekoak ordainduko. Itzuli beharrekoa ez-betetzearen larritasunaren arabera izango da.

Hitzarmen honetan ezarritakoa ez betetzeak, edo jasotako kopuruak dirulaguntza ematea eragin zuten helburuak ez diren beste batzuk betetzeko erabiltzeak berekin ekarri ahal izango du, kasuan kasuko espedientearen izapidetan ondoren, emandako dirulaguntza galtzea, eta jasotako zenbatekoak gehi dagozkien legezko interesak Villabonako Udalarik itzuli behar izatea, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Legearen 41. eta 42. artikuluek eta horren araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 91., 92. eta 93. artikuluek ezarritakoari kalterik egin gabe.

11. Indarraldia



AMASA-VILLABONA

Villabonako Udala

Hitzarmen honen indarraldia 4 urtekoa izango da: 2024-2027. Edozein unetan, paragrafo honetan aurreikusitako epea amaitu baino lehen, hitzarmeneko alderdiek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urtez, edo hitzarmena iraungitzea.

Eta bi alderdiak ados daudela erakusteko, hitzarmen hau sinatu dute, bi aletan, goiburuan adierazitako egunean eta tokian.

VILLABONAKO UDALEKO ALKATEAK,

ELKARTEAREN ORDEZKARIAK,

Izpta.: BEATRIZ UNZUE ESNAOLA

Izpta.: ARTEAGA USANDIZAGA ENEKO

VILLABONAKO UDALEKO
IDAZKARIAK

Izpta.: MIKEL VON WICHMANN PAVLETICH

